

|   |       |       |               |      |                |
|---|-------|-------|---------------|------|----------------|
| MUNIBE (Ciencias Naturales-Natur Zientziak) | Nº 50 | 85-88 | SAN SEBASTIAN | 1988 | ISSN 0214-7688 |
|---|-------|-------|---------------|------|----------------|

# Gipuzkoan hegazti habigile batzuen lehen aipamenak eta beste aipamen interesgarri batzuk

## First records of some nesting birds in Gipuzkoa and other interesting records

**GAKO-HITZAK:** Ornitofauna, Euskal Herria, Gipuzkoa.

**PALABRAS CLAVE:** Ornitofauna, País Vasco, Gipuzkoa.

**KEY WORDS:** Ornithofauna, Basque Country, Gipuzkoa.

**M. OLANO \***  
**J. VAZQUEZ \***  
**T. AIERBE \***

### LABURPENA

Azken urte hauetan Gipuzkoan zehar egindako behaketei esker, habigile diren espezie hauen lehen aipamenak egiten dira: *Fulica atra*, *Podiceps cristatus*, *Tachybaptus ruficollis*, *Riparia riparia*, *Falco subbuteo*, *Asio otus*, *Aquila chrysaetos*, *Circaetus gallicus* eta *Dryocopus martius*. Honetaz gain, lurralde honetan oso gutxi ezagutzen diren beste espezie hauen hainbat datu biltzen dira: *Accipiter gentilis*, *Hieraetus pennatus*, *Milvus migrans*, *Bubo bubo*, *Motacilla flava*, *Monticola solitarius* eta *Certhia familiaris*.

### RESUMEN

Como resultado del trabajo de campo realizado estos últimos años, se da cuenta por primera vez de la presencia como aves nidificantes en Gipuzkoa de *Fulica atra*, *Podiceps cristatus*, *Tachybaptus ruficollis*, *Riparia riparia*, *Falco subbuteo*, *Asio otus*, *Aquila chrysaetos*, *Circaetus gallicus* y *Dryocopus martius*. Además, se recogen datos de unas cuantas especies muy poco conocidas en esta provincia: *Accipiter gentilis*, *Hieraetus pennatus*, *Milvus migrans*, *Bubo bubo*, *Motacilla flava*, *Monticola solitarius* y *Certhia familiaris*.

### SUMMARY

As a result of the field work carried out these last years the presence of these nesting birds is reported for the first time in Gipuzkoa: *Fulica atra*, *Podiceps cristatus*, *Tachybaptus ruficollis*, *Riparia riparia*, *Falco subbuteo*, *Asio otus*, *Aquila chrysaetos*, *Circaetus gallicus* and *Dryocopus martius*. Besides, there are some facts about several very little known species in this province: *Accipiter gentilis*, *Hieraetus pennatus*, *Milvus migrans*, *Bubo bubo*, *Motacilla flava*, *Monticola solitarius* and *Certhia familiaris*.

### SARRERA

Gipuzkoako hegaztien ezagutzak orain hamalau urte aurrerakada nabarmena izan zuen Atlas argitaratu zenean (ÁLVAREZ & *al.*, 1985), baina plazaratu berria den lanean (ÁLVAREZ & *al.*, 1998) ez da zenbait hegaztiren datu berririk ageri. Hori dela eta, azken urte hauetan Gipuzkoan zehar hainbat datu berri ezagutzeko aukera izan dugunez, aipagarriak iruditu zaizkigunak azaldu ditugu hemen.

Espezie bakoitzak, Autonomia Erkidegoan zer nolako babes maila duen; non eta noiz aurkitu den eta behatzaileak nortzuk izan diren aipatzeaz gain,

espezie bakoitzaren azalpenak ematen dira.

#### 1.- Habigileen lehen aipamenak

##### **Fulica atra** L.

Kopetazuria. Focha común.

*Babes maila:* Arriskurik gabekoa.

*Lekua:* Aretxabaleta,  
Urkuluko urtegia, 30TWN46.

*Data:* 1994-VI-13.

*Behatzaileak:* Mikel Olano.

Azalpenak: Hiru bikote beren habiekin. Geroztik bikote kopurua handituz joan da urtez urte eta 1998an 16 bikotek umetu zuten.

\*Aranzadi Zientzia Elkarte  
Zorroaga gaina, z/g. 20014 Donostia

**Podiceps cristatus** L.

Murgil handia. Somormujo lavanco.

*Babes maila:* Interes bereziko.

*Lekua:* Aretxabaleta, Urkulukurtegia,  
30TWN46

*Data:* 1996-V-22.

*Behatzaileak:* Imanol Artola eta Mikel Olano.

*Azalpenak:* Aurreko urteetan ere bikote bat ikusi zen eztei dantza eginez baina lehen umea 1996an ikusi ahal izan genuen, gehienetan heldu baten bizkarrean gordetzen zelarik. Geroztik, urtero ugaltzen dira eta bikoteak gehitzen doaz; 1998an lau bikote ikusi ziren habia egiten eta hiruk behintzat atera zituzten umeak aurrera.

**Tachybaptus ruficollis** Pallas

Txilinporta txikia. Zampullín común.

*Babes maila:* Bakana.

*Lekua:* Mutiloa, Troia urtegia, 30TWN56.

*Data:* 1998-VI-24

*Behatzaileak:* Tomas Aierbe eta Mikel Olano.

*Azalpenak:* Itxura guztien arabera, Urkuluko urtegiaren lehendik ere umetu izan dute, helduak ikusi baititugu eta alarma-soinuak behin baino gehiagotan entzun ere bai; hala ere, ez dugu ez umerik ikusi ez habirik aurkitu. Troiako urtegiaren, aldiz, 1998an, aipaturiko egunean hegazti bat ikusi genuen habian etzanda erruten eta beste heldu bat 5 Ume txikirekin lezka sail batean.

**Riparia riparia** L.

Uhalde enara. Avi6n zapador.

*Babes maila:* Kaltebera.

*Lekua:* Tolosa, Oria ibaiaren ertzak,  
30TWN77; Billabona, Oria ibaia,  
30TWN78

*Data:* 1998ko udaberri-udara.

*Behatzaileak:* Fernando Unzue, Javier Vazquez.

*Azalpenak:* Bi kasuetan hiri barnean, ubideraketako hormen zulotxoetan egiten dituzte bere habiak.

**Falco subbuteo** L.

Zuhaitz belatza. Alcot6n.

*Babes maila:* Bakana.

*Lekua:* Eskoriatza, 30TWN36, intsinis pinudi heldua; Altzo, 30WN77, intsinis pinudia; Oñati, 30WN46; Bergara, 30TWN47.

*Data:* 1990-VIII-25, 1996ko udaberri-udara.

*Behatzaileak:* Javier Vazquez, Mikel Olano.

*Azalpenak:* Lehenengoan gazteak eta helduak ikusi ziren, hainbat garrasi eta alarma-oihu artean eta, segidan, erabili zuten habia aurkitu genuen inguruan. Harrezkero, beste leku batzutan ere ikusi dira.

**Asio otus** L.

Hontza ertaina. Buho chico.

*Babes maila:* Kontuan ez da hartu.

*Lekua:* Aralarko Parke Naturala,  
30TWN75, pagadia eta mendilarrak.

*Data:* 1996-VI-05.

*Behatzaileak:* Javier Villasante, Tomas Aierbe, Mikel Olano.

*Azalpenak:* Gazteak entzun eta ikusi ziren.

**Aquila chrysa6tos** L.

Arrano beltza. 6guila real.

*Babes maila:* Kaltebera.

*Lekua:* Aralarko mendikatea, 30TWN 76.

*Data:* 1995, 1996, 1997 eta 1998ko udaberri-udarak.

*Behatzaileak:* Mikel Olano, Tomas Aierbe.

*Azalpenak:* Bikote batek habia egin du joan diren urte hauetan; Nafarroan eta Gipuzkoan ibili ohi da. 1995ean aurkitu zen habia eta geroztik urtero egin zaie jarraipena: 1995, 1996 eta 1997an ume bana atera zuten aurrera; 1998an emea etzan zen habian baina umaldia eten egin zuen, ez gaude ziur zergatik. Aurten aldiz (1999-VI-23), inguru hauetarako harrigarria bada ere, bi ume aurrera ateratzea lortu dute.

*Lekua:* Aizkorriko mendikatea,  
30TWN55, 30WN46.

*Data:* 1996, 1997 eta 1998.

*Behatzaileak:* Tomas Aierbe, Mikel Olano.

*Azalpenak:* hiru urte hauetan askotan ikusteko aukera izan dugu. Bikote batek lurraldea hemen dauka eta ehizarako behintzat erabiltzen du. Ez dakigu umetzen duten; habia Araban edota Gipuzkoan eduki dezakete.

**Circaetus gallicus** Gm.

Arrano sugezalea. Águila culebrera.  
*Babes maila*: Bakana.

*Lekua*: Mendaro, 30TWN48, baso mistoan.  
*Data*: 1991-VIII-04.  
*Behatzaileak*: Javier Vazquez.

*Azalpenak*: Urteko umea, jaio zen inguruan hegan zebilen. Ornodunen Atlasean diotenez, Gipuzkoan ez da inoiz ikusi habia egiten: (ÁLVAREZ & al., 1985: 118).

**Dryocopus martius** L.

Okil beltza. Pito negro.  
*Babes maila*: Bakana.

*Lekua*: Aralarko Parke Naturala eta Araxesko bailara, habigilea izan litekeena 30TWN75, 30TWN77; habigile posiblea 30TWN65. Pagadia eta koniferoen landaketak nahasian.  
*Data*: 1999-III-21, 1999-III-23.  
*Behatzaileak*: Tomas Aierbe, Peio Zeberio, Mikel Olano.

*Azalpenak*: Lehenengo bi lekuetan bikotea ikusi da eta bietan arra kantu kantari bere lurraldea adierazten gainera. Hirugarren kuadrakulan aie bat ikusi ahal izan dugu. Azken zita hauekin 11 bildu ditugu denera azken urte hauetan Gipuzkoan. Ornodunen Atlasean entzuketak bakarrik aipatu zituzten (ÁLVAREZ & al., 1985: 163).

**2.- Beste hainbat aipamen interesgarri****Accipiter gentilis** L.

Aztoarea. Azor.  
*Babes maila*: Bakana.

*Lekua*: Beizama, Ibai-Eder, 30TWN67, intsinis pinudia.  
*Data*: 1997ko urtea.  
*Behatzaileak*: Manuel Beloki.

*Azalpenak*: Pinudi bat botatzen ari zirela, habia zeukan pinua bota zuten eta bertan bi ume zeuden. Egurgileak jaso eta etxean hazten saiatu zen; bat hil egin zitzaion eta, hori ikusirik, bestea Arrano Etxera eramane zen eta hau bere onera ekartzea lortu eta gero, inguru horretan askatu zen. Ornodunen Atlasean diotenez, Gipuzkoan habi bakarra ezagutzen zen: (ÁLVAREZ & al., 1985: 122).

**Hieraëtus pennatus** Gm.

Arrano txikia. Aguililla calzada.  
*Babes maila*: Bakana.

*Lekua*: Mutiloa, 30TWN66, intsinis pinudia.  
*Data*: 1998-VI-26.  
*Behatzaileak*: Tomas Aierbe, Mikel Olano.

*Azalpenak*: Habia 1994an aurkitu zenetik, jarraipena eginez ikusi ahal izan dugu urtero umetzen duela bikote honek eta hiru habi behintzat badituela. Goian aipatutako datan bi ume nahiko haziak zeuden habian. Gipuzkoan leku batean bakarrik ezagutzen zen (RIOFRIO & al., 1984: 142).

**Milvus migrans** Bodd.

Miru beltza. Milano negro.  
*Babes maila*: Arriskurik gabekoa.

*Lekua*: Aralarko Parke Naturala, Laredo, 30TWN75, pagadia.  
*Data*: 1996-IV-19.  
*Behatzaileak*: Agustin Urteaga, Mikel Olano.

*Lekua*: Billabona, 30TWN78.  
*Data*: 1998-06-08.  
*Behatzaileak*: Javier Vazquez.

*Azalpenak*: lehenengoan bikote bat ikusi zen habia egiten pago batean; jarraipenik ez zitzaion egin. Bigarrenean heldu bat habian txitatzen. Ornodunen Atlasean diotenez, Gipuzkoan behin bakarrik ikusi da habia egiten (ÁLVAREZ & al., 1985: 118).

**Bubo bubo** L.

Hontza handia. Buho real.  
*Babes maila*: Bakana.

*Lekua*: Ataun, 30TWN66, landazabala  
*Data*: 1999-VI-07.  
*Behatzaileak*: Javier Vazquez.

*Azalpenak*: Abisu baten ondorioz, tentsio handiko poste baten azpian hilik aurkitu genuen.

**Motacilla flava** L.

Larre buztanikara. Lavandera boyera.  
*Babes maila*: Arriskurik gabe.

*Lekua*: Aretxabaleta, 30TWN46, Urkuluko urtegiko larre eta sasi ertzak.

*Data:* 1998-V-28.

*Behatzaileak:* Tomas Aierbe, Mikel Olano.

*Azalpenak:* Hiru bikote ari ziren umeak ateratzen; janaria ematen eta gorozki-zakuak erretiratzen ikusi ziran. Gipuzkoan, Txingudin bakarrik ikusi izan da (ÁLVAREZ & *al.*, 1985: 180).

**Monticola solitarius** L.

Harkaitz-zozo urdina. Roquero solitario.

*Babes maila:* Interes berezikoa.

*Lekua:* Pasaia, 30TWN89, itsas labarra.

*Data:* 1993-IV-12.

*Behatzaileak:* Javier Vazquez.

*Azalpenak:* Ar bat kantu kantari bere lurraldea adierazten. Gipuzkoan ikusten den bigarren aldía.

**Certhia familiaris** L.

Basoetako gerritxoria. Agateador norteño.

*Babes maila:* Bakana.

*Lekua:* Ataun, 30TWN65, pagadia.

*Data:* 1996, udaberria.

*Behatzaileak:* Alejandro Onrubia.

*Azalpenak:* Hegazti bat kantari, habiak egiteko garaian. Ornodunen Atlasean zalantza haundiekin aipatzen dute inguru berean, (ÁLVAREZ & *al.*, 1985: 263).

**ESKERRONAK**

Behatzaile bezala aipatun ditugun guztiei eta gu-rekin batera mendian ibili den hainbat adiskideri gure eskerrak eman nahi dizkiegu, Gipuzkoako hegaztien ezagutza zabaltzen eman diguten laguntzagatik.

**BIBLIOGRAFIA**

ÁLVAREZ, J., A. BEA, J.M. FAUS,  
E. CASTIÉN & I. MENDIOLA

1985 *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ornodun Kontinentalen Atlasa.* Eusko Jaurlaritz, Gasteiz.

ÁLVAREZ, A. & *al.*

1998 *Vertebrados continentales. Situación actual en la Comunidad Autónoma del País Vasco.* Eusko Jaurlaritz, Gasteiz.

RIOFRÍO, J., J.A. BELZUNCE & P. CANOSA

1984

Nota sobre la primera nidificación del águila calzada (*Hieraëtus pennatus* Gm.) en Guipúzcoa. *Munibe*, 36: 142.